

(II)

BI MAKILA BIDEAN

Merkatutik etxera, ilun-nabarrean,
Zinturra legundurik arno-nafarrean,
Irrintzinaka noa, makila airean!...

(J. B.)

Etxe-alde, irrintzinaka heldu zen Sarasketa Biamunteko Piarre, irrintzinaka eta makila firrindilaka... "Ai, ui, ui!"... Astelehena zen, Donianeko merkatu-arratsa. Gizon gazte ona zen Piarre, eta adixkide ainitz bazuelakotz ere, Mesaarrainean, Dofinenean eta Leonenean lehenik, Lexakaren etxeen gero Izpuran, Madalenan berantxago, Donazaharre-maiderreenean azkenik bost baso arno edanik, bazoan orai Antxixarburuko patarrari gora, irrintzinaka bethi, eta makila firrindilaka!

Ah! Makila hura! Azkon zabaleko mizpira legun eta xuxen uxen batetarik egina! Makila hura sahetsean ez othe ere zen sorthua? Berak ongi bazakiena? Zer nahi den, ohiko kantuan bezala, *lehen burratsak zituen egin munduan, amak lagunduz, bainan...* makila eskuan!

Eta geroztik, badut uste bere itzala lehenago galduko zuen Piarrek, bere makila galduko zuen baino, ezen, haur txar bat oraino zelarik, aitaren makila behar zuen jaunak eskuetan... lokartzeko!

Aitak berak irakatsi zion makila hartaz baliatzen. Frantxoarenak, Duzunaitzeke errietor sainduak ez ziozkan *hiru mixterio printzipalak* buruan oraino sarrarezten ahal. Eta Piarrek, jadanik, bere aitari ikasirik, bazakien: makila saheska emanik, bere buruaren gerizatzen; azpitik goiti, ximixtaren pare, makila haren firurikan erabiltzen; gainetik beheiti, makila harekin, marroaren kopeta porroskatuko¹ zuen kolpearen emaiten.

Horiak oro bazakizkan, eta nola zakizkan! Hots, makilkari bat egin zen izigarria, nehor nihun ez baitzitzaien, borrokaldi bat harekin egin beharrez, gogo-kontra baizik atheratzen.

Behin bizkitartean, gauaz, Antxixarburuko gaztena-ondo handien artek, zokorik ilhunenean, gizon bat jali zitzaion, jauzian, biderat... Oren laurden batez arizan ziren, elgar ezin garraituz, elgarren bethekoak² biak! Oren laurden baten buruan, boneta begietaraino sarturik, xamarrarekin bere burua kukututik urrundu zen... *aita*, semea nausi utzirik, han, Antxixarburuko oihanean! Hiltzerakoan bakarrik aithoritu zion hori bere semeari:

"Egundaino nehork ez ziakan joan, ordu arte. Nahi nikan ikusi, hire aita bezanbat bahintzanez. Ikusi nikan, eta nere gostuz sinbetsi, aiphatu ere ez baituk, sekulan, arrats hartako gure gudu izigarria!..."

Irrintzinaka bazoan betaz Piarre Biamuntekoa...

Eta horra non, han nonbait, Ahatsako bidean, bertze irrintzina bat eraikitzen den samina³...

ELHEKETA. Aste hantako elbe-pidea.

- 1 - Biamunteko Piarren zaletasuna?
- 2 - Nola zen horrean?
- 3 - Zer bilhakatu zen.

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Bazakien 32. Ez Ziozkan

33. Bazoan 34. Zitzaion

31 JAKIN. Indicatif imparfait

Nik nahiakien = je savais

Hik hahiakien = tu savais

Zuk zinakien = vous saviez

Harek zabiakien = il savait

Guk ginaakien = nous savions

Zuek zinakiten = vous saviez

Heiek zabiakien = ils savaien.

32. UKAN. Conf. à dle epli. Indicatif.

Imparfait. Hari = à lui.

Nik niozkan = n'as tenu = je les ai vus

Zuk ziniezkan = ziniezkan = vous les avez

Harek ziozkan = ziozkan = il - a - avait

Guk ginozkan = ginozkan = nous - n - avions

Zuek ziniozketen = ziniozketen = vous - n - avez

Heiek zizkieten = zizkieten = ils - n - avaient

33. JOAN = Indic. Imparfait

Ni nindoan = j'allais

Hi lindoan = tu allais

Zu zeruatzen = vous alliez

Hura zoen = il allait

Gru genozatzen = nous allions

Zuek zinoratzan = vous allez

Heik zoatzan = ils allaient